

20 10

TXOSTENA

30. URTEURRENA



IZITEGI

Erakunde Publiko Finantzatzaileak



OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SANIDAD



ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Gizarte Ekintza Saila
Departamento de Acción Social



Erakunde Pribatu Finantzatzaileak

Euskadiko Kutxa ■

Bizkaiko Elikagaien Bankua ■ Carmen Gandarias Fundazioa



■ Egoitza:

Langaran, 14 - behe. 48004 - Bilbao
Tel. 94 608 70 08 - Faxe. 94 608 70 09
bizitegi@bizitegi.org / www.bizitegi.org

■ Programa Dibertsifikatua:

Irumineta, 28 - behe. 48004 - Bilbao
Tel. 94 412 65 76 - Faxe. 94 411 60 88

■ Droga-mendetasunen Programa:

Belategi plaza, 7 - behe. 48002 - Bilbao
Tel. 94 444 25 88 - Faxe. 94 410 13 32

■ Etxerik Gabekoak Programa:

Larraskitu-Errekalde errepidea 1, solairuartera
3. dep. 48002 - Bilbao
Tel. 688 682 106

30 urte elkartearen aldeko aukera indartzen

2010ean erronka hau jarri genion geure buruari: Bizitegin elkarte-lana nola ulertzen dugun definitzea. Izan ere, konpromiso hori eguneratzeko beharra sentitu genuen.

1. Batetik, elkartearekiko harremanak hasieran nola bizi ziren ikusita, irudipena daukagu zerbait galdu egin dela bidean. Eguneroko eginkizunek zaildu egiten dute dimentsio hori ikustea, eta kezka puntu bat badugu hori berreskuratzeko.
2. Bestetik, diskurtso argiago eta landuago baten beharra sumatzen dugu, gero eta indibidualistagoa den gizarte honen aurrean. Izan ere, Administrazio Publikoen esku uzten ditu gizarte-beharrei aurre egiteko erantzukizuna, eta bizkar ematen dio bazterketaren sorreran gizarteak berak duen eginkizunari. Baita bazterketa arintzeko egin behar den lanari ere. Ahaztu egin da gizarteak berak izan behar duela aldaketaren motorra. Horregatik berrindartu eta birdefinitu behar da gizarte-eraldaketaren utopia.

Kezka horrek garbi erakusten du Bizitegiren identitatean indarrean jarraitzen duela elkarte-dimentsioarekiko sentikortasunak, eta hain zuzen ere, ez dela galdu, gure jardueretan ikus daitekeen bezala. Baita programak diseinatu, antolatu eta kudeatzeko moduan aurki ditzakegun elkarte-ezaugarrietan ere.

Hori dela-eta, dokumentu bat prestatu dugu, Bizitegin elkarte-lana nola ulertzen dugun definitzen duena. Eta modu parte-hartzailean egin dugu, Bizitegiren estiloari jarraiki. Lan horrek ilusioa piztu du guban, bai jadanik egiten dugunagatik, baita hobetu behar dugunagatik ere. Eta kohesioa eman digu, beren borondatez parte hartu nahi izan dutenekin egin dugulako.

Elkartearen lana denon artean egiten dugu: langile, boluntario, erabiltzaile, bazkide eta abarrok. Eskerrik asko guztioi.

Eskerrik asko jadanik egindako lanagatik, guztion artean egindakoagatik, lagundu ditugun pertsonengatik, hasi dituzten prozesuengatik... Eskerrik asko erabiltzaileei, aurrera egiteko grinagatik, euren prozesuen erantzukizuna hartzeagatik, ematen digutenagatik eta Bizitegiri eskaintzen diotenagatik.

Bizitegi elkarte bizi-bizia da. Erronka berriak har ditzakegu, proiektu berriak hasi... Bizi-bizirik dago, eta sustrai sendoak ditu, 30 urtez lurrean errotuta, eskarmentu handia emanez, eta egunero ikasten jarraitzeko grinari eutsiz.

Bazkideen Batzarra

Aurkezpena

BIZITEGIk Bilboko Otxarkoaga auzoan hasi zuen bere jarduna komunitate-lanean; 1980. urtean, zehazki. Geroago, 1988an, irabazi-asmorik gabeko elkarte bihurtu zen, eta 1997an Balio Publikoko Entitatea zelako aitortpena jaso zuen.

XEDEA

Gure elkarteak erabiltzailez, bazkidez, boluntarioz eta profesionalaz osatuta dago, eta Bizkaian bazterketa-egoera larrian dauden pertsonak gizarteratu nahi ditu, kolektibo horietan zuzenean esku hartuz, eta gizartearen sentsibilizatzeko, egoera bidegabeak salatzen, eragin politikoa izateko eta, azken batean, gizartearen bestelakotzeko nahiz egiturazko aldaketak lortzeko ekimenen bidez.


IKUSPEGIA

Bizkaiko elkarte erreferentziala izan nahi dugu bazterketa-egoera larrian dauden pertsonak babesteko jarduneremuan. Horiek horrela, gogoeta-prozesuak, ikerketa nahiz etengabeko berrikuntza sustatu gura ditugu, eta gizarte-aldaketa hori xede duten foro eta sare nagusietan gogoz parte hartzeko prest gaude.

BALIOAK

- **ELKARTASUNA**, jarrera gisa, gizarte bidezko eta berdintasunezko baten alde lan egiteko.
- **PERTSONEN BEREZKO BALIO BEREZIA** aldarrikatzen dugu.
- **PROFESIONALTASUNA**, lan eta jarrera eraginkorrak izatea erabaki baitugu.
- **BOLUNTARIOTZA**, gizarte solidario baten konpromisoaren adierazle.
- **ARDURA**, nork bere buruaren jabe izateko eta geure bizitzaren eta hazte-prozesuaren protagonistak izateko.
- **PARTAIDETZA**, bai pertsona bakoitzak bere prozesu propioan izan beharrekoa, bai talde eta elkarten prozesuetan izan beharrekoa.

GURE BIDE LAGUNTZA-EREDUAREN GAKOAK




Bidelaguntza-eredua

HELBURUA


Bidelaguntza-ereduaren helburua gizarteratze-prozesuak erraztea da, horretan ari diren pertsonak autonomia handiagoa eta bizi-kalitate hobea izan dezaten.

EZAUGARRIAK

- **Integrala**, pertsonaren bizitzan une oro eragiten duten alderdi guztiak hartzen ditugulako kontuan.
- **Etengabea**, pertsonari bere gizarteratze-prozesuan zehar laguntzen diogulako, bere iragana eta etorkizunerako itxaropenak kontuan izanik; gure bizi-prozesua ez delako inoiz “jadanik egindako” errealitatea, etengabeko bidaja baizik.




Nola antolatzen garen bizitegin






Etxerik Gabekoak programa

Bilboko kaleetan jarraituki bizi diren, narriadura pertsonaleko egoera kroniko larriak dituzten eta gizartean dauden baliabideak eskuratzeko arazo handiak dauzkaten pertsonei laguntzen die.



ERABILTZAILEEN ASEBETETZE MAILA



LAGUNTZA JASO DUTEN PERTSONEN KOPURUA

239

Kaleko esku-hartzea

73

Udal Aterpetxea

294

Neguko aterpea


262

Onartu eguneko zentroa



Droga-mendekotasunen programa

Programak gizarteratzeko bidea eskaintzen die gizarte-bazterketa jasaten dute pertsoneri, batez ere droga-mendekotasuna dutenei eta/edo buru-osasuneko arazoak dituztenei.



ERABILTZAILEEN PROFILA

	GIZONAK		EMAKUMEAK		GUZTIRA	
Generoa: Gizonezkoa	88	%92	6	%100	94	%92
Adina: 30-44	46	%48	5	%83	51	%50
Egoera zibila: Ezkongabea	76	%79	3	%50	79	%77
Erroldatzea: Bilbo	61	%64	6	100	67	%66
Etxebizitza: Bizitegiren etxebizitzak	30	%31	6	100	36	%35
Diru-sarrera mota: Diru-sarrerarik ez	39	%41	0	%0	39	%38
Prestakuntza-maila: Eskola ziurtagiria	51	%53	0	%0	51	%50
Ezintasuna: Psikikoa	20	%21	2	%33	22	%22

ERABILTZAILEEN ASEBETETZE-MAILA

Errekaldeko eguneko zentroa



Uribarriko eguneko zentroa



Egoitzak



OKUPAZIO-INDIZEA

%88



%91




%82



Programa dibertsifikatua


Dibertsifikatua etengabeko zaintzako komunitate-programa bat da, bazterketa-egoeran edo egoera horretan erortzeko arriskuan egon eta arazo nagusia buruko gaixotasun larria izatea duten pertsonen beharrei erantzuten ahalegintzen dena.




ERABILTZAILEEN PROFILA

	GIZONAK		EMAKUMEAK		GUZTIRA	
Generoa: Gizonezkoa	53	%66	27	%34	80	%100
Adina: 42 - 53	23	%29	16	%20	39	%49
Egoera zibila: Ezkongabea	44	%55	13	%16	57	%71
Etxebizitza: Bizitegiren etxebizitzak	54	%68	20	%25	74	%93
Diru-sarrera mota: OE	40	%50	19	%24	59	%74
Prestakuntza-maila: Eskola ziurtagiria	25	%31	12	%15	37	%46
Ezintasuna: Psikikoa	35	%44	19	%24	54	%68

OKUPAZIO-INDIZEA



ERABILTZAILEEN ASEBETETZE-MAILA



Bazkideak, langileak, boluntarioak eta bekadun/praktiketakoak

Gure elkartearen aktiborik garrantzitsuena pertsonak dira: bazkideak, langileak, boluntarioak eta bekadun/praktiketakoak.

PERTSONA KOPURUA

25



BAZKIDE

86



LANGILE

32



BOLUNTARIO

5



BEKADUN/
PRAKTIKETAKO

LANGILEEN ETA BOLUNTARIOEN ASEBETETZE MAILA

LANGILEAK

BOLUNTARIOAK



PERTSONAK ZAINTEAREN ALDEKO APUSTUA

- **Etengabeko prestakuntza** dugu Bizitegiko lehentasune-tako bat. 2010ean langileen %80 izan zen Prestakuntza Planaren ekintzaren batean parte hartzen, hainbat arlotan: Gizarte Esku-hartzea, Kudeaketa, Osasun Zaintza, Lan Arriskuen Prebentzioan, Lidergoa, Berrikuntza...

Bizitegin Lidergoa bultzatzen jarraitzen dugu. Berriro ere, iaz, gure lider guztiek (%100) jaso zuten berariazko prestakuntza, besteak beste Lidergoa eta Zuzendaritza trebetasunen alorrean.

Zuzendaritza Trebetasunen Prestakuntza taldea



- **Arrisku Psikosozialen Ebaluazioak** emandako emaitzen azterketak (Elkarteko langileen artean egina) erakusten du osasun psikosozialaren aldetik ondo gabiltzala, osasuntsu gaudela, kontuan izanik Gizarte Esku-hartze Sektorean indarra hartzen ari den arriskuetaiko bat dela.

- **Barne Komunikazio Plana** abian jartzean (batik bat Barne Buletina eta Intraneten egindako aldaketak) hobetu egin dira Elkarteko kideok parte hartzeko, gogoeta egiteko eta harremanetarako ditugun aukerak, baita informazioa jasotzeko bideak ere.

- **Boluntarioek** gure topaketetan izan duten parte-hartzea ere areagotu egin da, eta horrek garbi erakusten du Elkar-tearekiko atxikipena handiagoa dela.

Hain zuzen ere, "Hirikide" Programan hartu dugu parte, hau da, Bolunta erakundeak gazteei zuzenduta egiten duen boluntariotzaren sentikortasun Programan.

Aliantzak, sareak eta foroak



BIZITEGI ERAKUNDE HAUEKIN ARITZEN DA LANKIDETZAN

Bizkaiko Gizarte Ekimeneko eta Esku Hartzeko Entitateen Elkarte (Gizardatz) | Boluntariotza eta Parte-hartzerako Agentzia (Bolunta) | Birgaiketa Psiko-sozialaren Euskal Elkarte (ASVAR) | Gizarte eta Zigor Justiziaren EAEko Foroa | Fiare fundazioa | Bikaintasunerako Euskal Fundazioa (Euskalit) | Pobreziaren eta Gizarte Bazterketaren Europako Sarearen Euskadiko Zuzendaritza Batzordeko kide da (EAPN) | Beste BI Plataforma | Drogaren mende dagoenari laguntzeko elkarte eta entitateen Espainiako Batasuna (UNAD) | Etorkinen aldeko Euskadiko GKEen koordinadora (Harresiak apurtuz).

PARTE-HARTZEA KANPOAN

- Bilboko Udaleko Gizarte Ekintzako Udal Batzordearen premiazko lojamendu eta gizarteratze Batzordean.
- Lankidetza Hitzarmena Bilboko Udalarekin, etxerik gabeko pertsonak gizarte-zerbitzuen bidez errolatzeko prozedurak garatzeko.
- Caritas eta **CEAR-EUSKADI** Batzordearekin batera egindako hitzarmena, dokumentazio-premiei elkarrekin erantzuteko sistema osatzeko.
- Lankidetza Hitzarmena Bermeoko Ospitalearekin.
- Lankidetza Hitzarmena Lan Munduan eta Gizartean txertatzen laguntzeko Sarearekin (**RAIS**).
- **Innovalan Zamudio** proiektuan parte-hartzea (buru gaixotasuna duten pertsonak lan munduan sartzen laguntzeko ekimena).
- Lankidetza Hitzarmena **Urbegi** gizarte ekimeneko erakundearekin.

2010EKO ALIANTZA BERRIAK

HARRESIAK APURTUZ

Harresiak Apurtuz GKEan sartu gara (etorkinei laguntzeko sarea).

HITZARMENA INNOVALANEKIN

Hitzarmena sinatu dugu Innovalan ekimenarekin. Buru-gaixotasuna duten pertsonak lan munduan sartzeko helburua du, eta bi modutara egiten du: batetik, berau osatzen dugun erakunde bidez (Avifes, Argia fundazioa,

Bizitegi elkarte, Emaus fundazioa, Eragintza fundazioa, Lantegi Batuak fundazioa, Hogar Izarra, Zamudioko Ospitale Psikiatrikoa, Innobasque eta Zamudioko Teknologia Parkea) eta bestetik, kontaktatzen diren enpresen bidez.

HITZARMENA URBEGIREKIN

Hitzarmena sinatu dugu Urbegirekin. Helburu nagusia zera da: buru-gaixotasun larria duten pertsonak eta/edo droga-mendetasunak dituztenak lan munduan sartzeko aukerak areagotzea, beti ere bazterketa-egoera larrian daudenean, eta Elkartearen zerbitzuren baten laguntza jasotzen dutenean.



Innovalan-eko partaideak

Zer ematen diogu gizarteari

JARDUNALDI ETA KONGRESUETAN PARTE HARTZEN DUGU

- Moderatzaile-lanak egin ditugu EAEko gizarte- eta osasun-erakundeen arteko "Osasun mentala eta gizarte-bazterketa" topaketako "Osasun mentalaren eta gizarte-bazterketaren arteko konfluentzia" izeneko mahai-inguruan.
- Argiaren 20. urteurreneko jardunaldi teknikoan parte hartu dugu, "Laguntza buru-nahaste larriak izan eta gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen" hitzaldiarekin.
- Erandioko Gizarte Ekintzako jardunaldia. "Gizarte-bazterketaren aurreko erronka eta desafio profesionalak" mahai-inguruan parte hartu dugu.
- Errehabilitazio psikosozialeko elkarten Espainiako federazioaren III. kongresuan parte hartu dugu, Valladoliden.
- Parte Hartuz elkarteak antolatutako "Parte-hartzea gizarteratzerako bermea" jardunaldian parte hartu dugu, "Giza baztertua eta parte hartzearen inguruko hausnarketak, esperientziak eta ikerketak, eguneroko praktikatik abiatuta".
- Onartu Batzordean parte hartu dugu. Bilboko udalerrian etxerik gabe bizi diren pertsonen egoera aztertzeko sortu da batzordea, eta sei teknikarik osatzen dute. Hau da teknikarien jatorria: Bilboko Udala, Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, hirugarren sektoreko ordezkari bat eta Bizitegiko ordezkari bat.
- EAPN Europa jardunaldiak Bruselan. Pobreziaren eta gizarte-bazterketaren aurkako urte europarra "Elkarrekin ikasten gizarte-bazterketari eta etxebizitzari buruz. Gizarteratze aktiboaren estrategia erabiltzea".
- Gijoneko Udalaren Sare Laneko jardunaldietan parte hartu dugu, Bilboko udalerrian egiten den sare-lanari buruzko hitzaldi bat emanez.
- Prestakuntza Deustuko Unibertsitatean. Kaleko lanaren esperientzia.

- "Gizarte-bazterketa larrian dauden pertsonen sentsibilizazioa" izenburupeko prestakuntza eman diogu Prosegur enpresari. Bilboko metroko zaintza-lanak egiten ditu enpresa horrek.
- Droga-mendetasunen Kataluniako Federazioak antolatutako "Hemen ez aldarriaren aurkako konpromisoak eraikitzen" jardunaldiko mahai-inguru batean parte hartu dugu. Txurdinagan Onartu eguneko zentroa irekitzeko asmoen baitan bizitzen ari garena azaldu zuen Bizitegiko kudeatzaile Aitor Gazteluiturrik, eta aholkuak eman zituen, etorkizunean egoera horietan nola jokatu behar den jakiteko.
- Hirugarren sektorearen Behatokia parte hartu dugu, buruko gaixotasun larriak izan eta baztertuak dauden edo baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonekin nola jokatu hausnartzeko. Hausnarketa horien ondorioz, "Buruko gaixotasun larriak izan eta baztertuak edo bazterketa-prozesuan dauden pertsonetako interbentzioa" agiria egin zen.
- Euskadiko EAPN sareak argitaratutako "Pertsonen parte-hartzea, gizarteratzerako tresna. Parte-hartzea sustatzeko esperientzia pilotuak gizarte-erakundeetan" agiria prestatzen lagundu dugu.
- Euskaliten kanpo-ebaluazioko lanetan parte hartu dugu. Erakunde baten kanpo-ebaluazioko prozesuan parte hartu dugu, Euskaliten ebaluatzaileen klubeko kide garen aldetik.

KOMUNITATEAN PARTE HARTZEN DUGU

- Bizitegiren margolanak eta produktuak erakutsi ditugu San Frantziskoko Auzo Etxean

Iraileko lehen hamabostaldian, Droga-mendekotasunen Programak artelanen erakusketa bat antolatu zuen, Errekalde eta Uribarriko eguneko zentroetako erabiltzaileek egin dituzten artelanekin.



EAEko gizarte- eta osasun-erakundeekin egindako topaketa.



Droga-mendekotasunen Kataluniako Federazioaren jardunaldia.



Elkarteen feria Errekalde auzoan.



Otxarkoagako festetan parte hartu dugu.

■ Errekalde auzoko elkarten feria

Errekalde auzoko elkarten ferian parte hartu zuten Errekaldeko eguneko zentroak eta Onartu eguneko zentroak. Zeramikazko horma-irudi bat jarri zen Errekaldeko plazan, droga-mendetasuneko programako erabiltzaileek egindakoa.

■ Balkoi eta erakusleirio loratuen lehiaketa antolatu du Bizitegi elkarteak Uribarriko jaietan

Uribarriko jai-batzordeak auzoko jaietan parte hartu izana eskertu zion Bizitegi.

■ Auzoko haur-jardunaldiak

Auzoko beste elkarte batzuekin batera, haur-jardunaldiak antolatu ditu aurten ere Bizitegi. Haurrek, erabiltzaileen eta boluntarioen laguntzaz, hainbat eskulan egiteko aukera izan dute, hala nola, narruzko eskuturrekoak eta kartoi mehez egindako maskarak, biboteak eta gorbatak.

■ Otxarkoagako jaiak

Otxarkoaga auzoko jaiei hasiera emateko, jaietako pregoia irakurtzeko eta txupina botatzeko ohorea izan zuen Bizitegi.

■ Errekalde eta Getxoko feriak

Errekalde eta Getxoko ferietan parte hartu dugu, Bizitegi eguneko zentroetan egindako gauzak erakutsi eta/edo saltzen.

■ Etxerik gabeko Pertsonak kontzentrazioa

Azaroaren 26an, kontzentrazio bat egin zen Isozaki atean, etxerik gabeko pertsonen egoera bistarazteko. Pertsona ugari parte hartu zuten kontzentrazioan, eta han izan zen Bizitegi ere.

Arratsaldean, 80 pertsona inguruk "kaleko futbola" txapelketa jokatu zuten. Etxerik gabeko pertsonak eta gizarte-erakundeetako langileek osatutako taldeen arteko partidua jokatu ziren.



Ferietan parte hartu dugu.

Bizitegiren ospakizunak



Bizitegiren 30. urteurreneko jardunaldia.

BIZITEGIREN 30. URTEURRENA

Aurten 30 urte bete ditugunez, jardunaldi bat antolatu dugu Bilboko Karmengo Ama ekitaldi-aretoan, eta 250 pertsona inguru bertaratu dira. Jardunaldian asoziazionismoaz, hirugarren sektorearen etorkizunak eta parte hartzeko eredu berriez hitz egin da. Gai horiek lantzeko, 30 urte egin ditugu atzera, eta 80 hamarkadan auzo-ordezkarik izan zirenen eta Bizitegiko bazkide eta sortzaileen laguntza izan dugu. Bizitegiko egungo langileek eman dute sektorearen gaur egungo egoeraren eta etorkizuneko aurreikuspenen berri, Administrazio Publikoaren eta hirugarren sektoreko sareen ordezkariek lagunduta.

Bizitegiko Kuskurum antzerki-taldeak Son las Bizitegi y 30 izeneko musikala eskaini digu, eta bertaratutako lagunak oso pozik azaldu dira ikusitakoarekin.

ESKAKIZUN TXIKIKO UDAL-ATERPETXEAREN 5. URTEURRENA

Aterpetxeak 5 urte bete dituela ospatu dugu aurten. Urteurrena ospatzeko meriendan, erabiltzaileak eta Gizarte Larrialdietako Udal Zerbitzuko, Bilboko Udaleko eta Bizitegiko ordezkariek elkartu ginen.

GURE FESTAK

Bizitegiko bazkideak, erabiltzaileak, langileak, boluntarioak, bekadunak, praktiketako langileak eta gainerako ki-deak giro onean lan egiten eta talde-kohesioa indartzen saiatzen gara. Urtero, hiru festatan parte hartzen dugu talde guztiok: inauterietan, maiatzeko festan eta urte-zaharretan.



Bizitegiko Kurruskum antzerki-taldea.



Maiatzeko festa.




Txosten ekonomikoa

2010an, jartzen duen lekuan, 2010ean jarri behar da. Ehunekoen ikurra zenbakiaren aurretik jarri behar da.

GASTUAK 2010

GASTUAK 2010	GUZTIRA	%
Erosketak	178.445	%5,5
Alokairuak	67.305	%2,1
Hornidura / erabiltzaileen hornikuntza	273.269	%8,5
Konponketak / garbiketa	78.828	%2,5
Aholkulariak / prestakuntza	50.114	%1,6
Zergak	3.031	%0,1
Langileen soldatak	2.474.170	%76,9
Finantza-gastuak	196	%0,0
Aparteko gastuak	502	%0,0
Inbertsioen amortizazioa	90.175	%2,8
GASTUAK GUZTIRA	3.216.035	
IBILGETU MATERIALEKO INBERTSIO-GASTUAK	178.788	

GASTUAK 2010



DIRU-SARRERAK 2010

DIRU-SARRERAK 2010	GUZTIRA	%
Elkartearen funtsak	362.369	%11
Erabiltzaileen ekarpenak	280.434	%8,8
Salmentak	43.697	%1,4
Dohaintzak eta laguntzak	38.238	%1,2
Kanpoko finantzazioa	2.729.286	%85,4
Hitzarmenak	2.633.911	%82,4
Foru Aldundiko Gizarte Ekintza	1.401.826	%43,8
Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila	818.344	%25,6
Bilboko Udaleko Gizarte Ekintza	405.308	%12,7
Tutoretza Erakundea	8.433	%0,3
Diru-laguntzak	95.375	%3,0
EJ Droga-mendetasunak	95.375	%3,0
Finantzako diru-sarrerak	3.870	%0,1
Diru-sarrera bereziak	30	%0,0
Beste sarrera batzuk	11.408	%0,4
Ekitaldiaren emaitza jakitean intsuldatu	90.175	%2,8
DIRU-SARRERAK GUZTIRA	3.197.138	

DIRU-SARRERAK 2010

